

**ARRISKU-ADIERAZLEA****1/6**

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazgarria da, 1/6 arrisku txikienaren adierazgarria izanik eta 6/6 handienarena.

ECC/2316/2015, azaroaren 4ko Aginduak, finantza produktuen informazio betebeharrak eta klasifikazioari buruzkoak diotenaren arabera eginiko produktu klasifikazioa.

Argibideak ematea da agiri honetako informazioaren helburu bakarra.

Letra lodiz eta etzanez nabarmendutako informazioak garrantzi handikoak dira.

KREDITU-ERAKUNDEA

Izen komertziala: CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO / LABORAL Kutxa

Egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa

Telefono-zenbakia: 901 333 444

Helbide elektronikoa: kontaktatu@laboralkutxa.com

KONTUAREN AZALPENA

Super Bat Libreta ageriko aurrezki kontu bat da, eurotan, guztiz erabilgarria, titularren artean norbait 16 urte baino gutxiago dituen pertsona fisiko bat izan beharko duelarik. Opariengatik aldatu daitezken puntu programa eskaintzen du.

SARRERAK EGITEKO MODUA

- Eskudiruzko sarrerak LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutzazain automatikoetan
- Nomina, pentsioa, langabezia-laguntza eta abar helbideratzea
- Transferentziak
- Txekeak sartzea
-

SALDOA ERABILTZEA

- Eskudirua ateratzea:
 - o LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutzazain automatikoetan
 - o Europar Batasuneko kutzazainetan, kontuari lotutako txartelaren bidez
- Ordaintzeko eragiketak:
 - o Helbideratutako zordunketak
 - o Transferentziak, baita agindu iraunkorrak ere, LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutzazain automatikoetan edo Online Bankaren bidez
 - o Kontuari lotutako txartelaren bidez egindako ordainketa-aginduak



LOTUTAKO ZERBITZUA: ZORDUNKETA-TXARTELA

Kontuaren titularrak kontuari lotutako zordunketa-txartela eskatu ahal izango du, eskudirua ateratzeko eta ordainketa-eragiketak egiteko.

Zerbitzuari buruzko kontratu aurreko informazioan eta kontratu-informazioan zehazten dira zerbitzuaren erabilera-baldintzak, kontserbazioa eta kostua.

LOTUTAKO ZERBITZUA: KREDITU-TXARTELA

Kontuaren titularrak ezingo du eskatu kontuari lotutako kreditu-txartelik.

KONTRATUAREN IRAUPENA

Supé Bat Kontuak iraupen mugagabea du.

Kontu horren titularrak 16 urte gainditzen duenez geroztik, Super Bat Kontuarentzat zehaztutako baldintzak Gazte kontuak dituenak ordezkaturako ditu, aldaketaren egunean figura honentzat indarrean dauden baldintza berberetan.

KOMISIOAK ETA GASTUAK

- Kontuak hiruhilean 15,00 euroko mantenimendu-komisioa sortuko du Laboral Kutxaren alde.

Komisio horretatik salbu aipatutako epealdian 1.000,00 eurotik gorako batezbesteko hartzekodun saldoa izan duten kontuek inongo zorpekorik izan ez badute.

- Interes-tasa zorduna: Zorpekoren bat baldin badago, interes zordunak balorazio-daten arabera egunero likidatu eta hiruhilero zordunduko dira.
Tasa Nominala: %7,298 **UTB: %7,5**

Informazio-gisa, aditzera ematen da eragiketa honen Urteko Tasa Baliokidea (UTB) dokumentu honen Baldintza Partikularretan emandakoa izango dela eta Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularren arabera (2012ko uztailaren 6ko BOE-n argitaratua) kalkulatua izan delarik.

Likidazio-aldia: hiru hilean behingoa.

Likidazio-egunak: 02-28a, 05-31, 08-31 eta 11-30a.

- Informazioa bidaltzearen komisioa:
 - o Postamail zerbitzuaren bidez: doan



- Hilero ohiko postaren bidez: doan
- Eguneroko maiztasuna (*): 3 € likidazio-aldiko.
- Hamabost egunean behingo maiztasuna (**): 2 € likidazio-aldiko.
- Egunero eta hamabost egunean behin egiten diren bidalketengatik, gainera, 0,34 euroko komisioa kobratuko da laburpeneko. Likidazio-aldi bakoitzeko lehen 5 laburpenak komisio horretatik salbuetsita geratuko dira, ordea.

(*) Laburpenean jasotzeko moduko mugimenduak dauden egunetan.

(**) Hil bakoitzaren 1ean eta 15ean edo, jaiegunak badira, hurrengo egun baliodunetan.

ORDAINKETA

ITN: % 0 (**UTB: % 0**)

Informazio gisa esan behar da, urteko tasa baliokidea (UTBa) Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrean —2012ko uztailaren 6ko BOE— adierazten denaren arabera kalkulatu dela.

KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratu honen iraupena mugagabea da, baina Laboral Kutxaren eskubidea izango da edozein momentutan kitatzekoa. Kasu honetan, 2 hilabeteko aitzinapenez titularrei komunikatuko zaie, eta epe hau igaro ondoren kontuak ez du interesik sortuko. Bezeroa saldoa erabiltzera beharturik dago, bai errezibo baten bitartez edo talonariorik izango balu, txeke baten bitartez egiteko aukera izango luke.

Titularren aldetik eska daiteke kantzelaioa aldeazurretik ohartarazi gabe, baina Laboral Kutxak berea egiten du saldoaren itzulera eta likidazioa atzeratzeko ahalmena bidean leudekeen kontuarekiko ordainbideak zorduntzeko behar beste denbora hartuz, titularrak kontuan helbideratutako ordainbideak entregatu behar ditu, hau da, libreta, txeke-taloitegia, zordunketa eta kreditu-txartelak.

BALDINTZAK ALDATZEA

LABORAL Kutxak eskubidea izango du komisio berriak ezartzeko edo agiri honetan jasotako interes-tasak aldatzeko. Aldaketak, bezeroarentzat onuragarriagoak ez badira, indarrean jarri baino 2 hilabete lehenago ezagutaraziko zaizkio, ohiko postaren bidez, TITULARretako edozeinek LABORAL Kutxari adierazi dion helbide elektronikora bidalitako mezua bidez edo edozein baliabide elektronikoko edo telematikoren bidez, hala nola telefono mugikorrera bidalitako SMS bidez edota jakinarazpena egiten den unean legez indarrean dagoen beste prozedura baten bidez.

Bezeroak uko egiten dio, berariaz, adierazitakoa ez den beste abisu-epe bati.

Titularrak aldaketa horiek onartzen dituela ulertuko da, aldaketak indarrean jartzeko proposatutako egunaren aurretik bere desadostasuna adierazten ez badu.



GORDAILUEN BERME-FUNTSA

CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako Gordailuen Berme Funtsari dago atxikita, eta gordailugile bakoitzari 100.000 euroko zenbatekoa bermatuko dio, gehienez, dirutan egindako gordailuetarako.

BANKU-KONTUAK INTSULDATZEKO PRINTZIPIO ERKIDEAK

CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO «Banku-kontuak lekualdatzeko printzipio erkideetara» atxikita dago. Europako Banku Industriaren Batzordeak (EBICek) Europar Batasun osoan aplikatzeko sortutako printzipioak dira horiek.